

**GOBERNU JUNTAK 2018.03.27an EGINDAKO
BILKURA BEREZIKO AKTA**

LEHENDAKARIA

UNAI ELKORO OIANGUREN

ARETXABALETA

BOKALAK

BEÑARDO KORTABARRIA OLABARRIA
JOSÉ MIGUEL URIBARREN AZPIAZU
ELENA LETE GARCIA
LANDER ARREGI INCHAUSTI
SABINO AZCARATE LETURIA
MARIA UBARRETXENA CID
JUAN KARLOS GARITANO EZKURRA
IRAITZ LAZKANO GARITAONANDIA
JOSÉ RAMÓN ZUBIZARRETA ALEGRÍA

ANTZUOLA
ARETXABALETA
BERGARA
BERGARA
BERGARA
ARRASATE
ARRASATE
ELGETA
ESKORIATZA

ETORRI GABEAK

IBON ARRUPE ALDECOCEA
OSCAR GARCÍA HORRILLO
ENEKA ZANKADA REMENTERIA
MIKEL BIAIN BERRAONDO
IRATI ETXEBERRIA GABIRIA
NEREA ZUBÍA BLAZQUEZ

ARRASATE
ARRASATE
LEINTZ-GATZAGA
OÑATI
OÑATI
OÑATI

BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA

BELEN TXINTXURRETA IPARRAGIRRE

JUNTAKO KIDE IZAN GABE ETORRIAK

ANDER ELORTONDO BERGARETXE

Behin behineko kontu-hartzailea

Mankomunitatearen egoitzako bilera gelan, 2018ko martxoaren 27an, 12:00etan, Mankomunitateko lehendakaria, Unai Elgoro Oianguren jauna, mahaiburu dela, Gobernu Juntaren bilkura berezia hasi da, goian aipaturikoak bertan direla, ondorengo gaia tratatzeko.

URBAN INNOVATIVE ACTIONS diru-laguntza Programa Europarra

Hasteko, Lander Arregi Juntakideak URBAN INNOVATIVE ACTIONS diru-laguntza Programa Europarraren 3. deialdira aurkezteko Proiektuaren aurkezpena egin du, DRAGON 5.0 proiektua, *“Humanity at work in the Co-operative City. The reinvention of the Mondragon Valley”*.

Proiektu honen azken helburua da robotizazioaren, adimen artifizialaren eta klima-aldaketaren eraginaren aurrean enplegua sortzeko erronkari aurre egitea.

Proiektu hau lankidetzan publiko/pribatu baten bitartez garatuko litzateke, Mankomunitatea izanik proiektuaren arduradun finantzario eta juridikoa Europako Batasuneko Erakunde Mandatariaren aurrean. Mankomunitateak jasoko luke diru-laguntza, bazkide desberdinen artean banatuz.

Bestalde, bazkide egileak edo kolaboratzaileak parte hartuko lukete, proiektuaren garapenean paper aktibo batekin, diru-laguntzaren zati bat jasoz. Hauek Mankomunitatearen aurrean bere ardura osoa izango lukete. Honako hauek dira:

- ARRASATEKO UDALA
- OÑATIKO UDALA
- BERGARAKO UDALA
- ESKORIATZAKO UDALA
- EMUN
- HUHEZI, S.COOP.
- SAIOLAN
- LKS INGENIERÍA, S.COOP.
- EUSKAMPUS
- GOIENA
- ARTEMAN
- BAGARA
- ARIZMENDI KOOP.E.
- FAGOR COOP.
- ULMA COOP.
- MGEP COOP.
- MONDRAGON CORPORATION

Proiektu honen aurrekontua guztira 6.242.258,70 €-koa da.

Iraitzek eta Beñardok diote, nahiz eta proiektua interesgarria iruditu, oso denbora gutxi izan dutela aztertzeko (astebete), eta faltan bota dutela hasieratik gai honi buruzko bileretan parte hartu ez izana, hurrengorako hau kontuan hartzeko eskatuz.

Herri txikiak proiektu honen periferian geldi ez daitezen, onartu eta garatuko balitz, eskatu dute Mankomunitateko udal guztiak izatea bere ordezkaritza proiektua garatzeko eratuko diren organo edo batzordeetan.

Azkenik, kontu-hartzaile eta idazkariaren txostenak ere ikusirik, Gobernu Juntak, José Miguel Uribarrenen abstentzioarekin, hainbat zalantza dituela eta, ZERA ERABAKI DU:

1. Proposatutako proiektu hau URBAN INNOVATIVE ACTIONS diru-laguntza Programa Europarraren 3. deialdira aurkeztea.
2. Europak proiektu hau onartuko balu, bazkide guztien artean sinatu beharreko agirian jaso beharreko baldintzak zehaztu ondoren, erabakiko luke Mankomunitateak proiektua garatzea.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, 13:00etan, bukatutzat eman da bilkura.